

12. PRAKTIKA

Zereginaren izenburua: Prestakuntza-diseinuak baloratzea eta txosten profesionalak idaztea

Zeregin mota: prozedurazkoa

Zer egin behar da?

Lehenik eta behin, aukeratu zure lantokian **(ikastetxean, enpresan ...)** edo interneteko sarean eskura duzun prestakuntza-diseinu bat.

Bigarrenik, teoriarik landu diren balorazio-irizpideak aplikatu.

Hirugarren, idatz ezazu prestakuntza-diseinu horri buruzko zure balorazioa jasotzen duen txostena.

ERANTZUNA

Jarraian ematen den erantzuna orientagarria baino ez da. Ez dago erantzun bakarra

ALDERDI FORMALAK

Hasteko, prestakuntza diseinuaren alderdi formalei egingo diegu erreferentzia. Lanaren aurkezpena, orokorrean, ona da, diseinua txukuna eta ordenatua baitago. Antolakuntzari dagokionez, ordea, aurkibide bat izatea oso komenigarria litzateke, irakurleak hasierako irakurketa azkarra egin ahal izateko eta irakurriko duenaren aurreko eskema bat irudikatu ahal izateko. Aurkibidea egotekotan, orrialdeak zenbakituta egotea ezinbestekoa da.

Letren diseinua irakurgarria da eta izenburuak letra lodiekin edo/eta larriekin nabarmendu dira, hierarkia zainduz. Dena den, horrez gain bestelako baliabideak erabiltzea egokiagoa litzateke, adibidez, izenburuetan letra tamaina desberdina erabiltzea eta hauek zenbakitzea. Bukatzeko, prestakuntza diseinuan hainbat akats aurkitu dira, bai ortografia aldetik, baita tipografia aldetik ere. Diseinuan, hitz batzuk gaizki idatzi dira eta tabulazioa jartzerakoan oker dago ere, azken berrikuspena egin ez denaren seinale.

DISEINU OROKORRA

Balorazioaren bigarren atalean, diseinu orokorra aztertuko da. Ezer baino lehen, agertu beharreko zenbait atal aipatu direla argitu behar da; hain zuzen ere, aurkezpena/justifikazioa, orientabidea, deskribapena, helburuak, metodologia eta edukiak. Garrantzitsuak diren beste atal batzuk, aldiz, ez dira zehaztu, horien artean: testuingurua, beharrak, ebaluazio sistema eta informazio iturriak. Era berean, aipatu diren ataletan ez da sakondu, beraz, lana osotasunean ulertzeko informazioa falta dela nabari daiteke.

Jarraian, atal bakoitzaren garrantzia eta hobetzeko aholkuak azalduko dira.

Prestakuntza diseinuaren justifikazioa

Diseinuaren hasieran, justifikazioaren atala dago. Bertan, arazoa aipatu eta beharrak identifikatu dira. Halaber, prestakuntza diseinua zergatik den garrantzitsua eta zer nolako onurak izango dituen azaltzea ondo legoke.

Orientabidea. Prestakuntzak jarraituko duen orientabideari dagokionez, justifikazio egokia eman da. Orientabidea aukeratzeko prozesua azaldu da, egia esan, hasierako ideia baztertu eta orientabide praktiko eta teknikoaren arteko posizioa hartzen da. Hobetearren, jarraituko diren bi orientabideen inguruko berezko ezaugarriak jarri daitezke. Atal horrek, orientabide baten eta bestearen artean hautatzeko eta erabakiaren zergatia ondo ulertzeko balioko du.

Testuingurua. Prestakuntza diseinuaren testuingurua ezaguna da. Hala ere, testuinguru horren azterketa ez da egin, hau da, arazo egoera inguratzen duten ezaugarri fisiko eta sinbolikoen azterketa. Lekua, kultura, denbora, partaideak eta abar ezagutzea ezinbestekoa da, arazoari egokitzen zaion prestakuntza diseinua sortu ahal izateko. Ildo beretik, ikastetxean bertan dagoen kultura eta klima interpretatzea beharrezkoa da.

Beharrak. Testuinguru batean aurreikusita dagoen informazioa biltzeko eta betetzeko, beharrak antzematen dira. Hauei esker, arazo egoera bideratzeko modua eta erabakiak hartzeko lehentasuna lortzen da.

Diseinu honetan, testuingurua bezala, beharrak ez dira sakonean identifikatu. Honez gain, beharrak identifikatzeko prozedura zehaztea lagungarria da, esate baterako, behar kontzeptuari mugak ipintzea, behar motak ezberdintzea eta informazio iturri desberdinak erabiltzea.

Diseinuaren deskribapena. Prestakuntza diseinuan, deskribapenaren atala dago. Esku-hartzea klaustroari eta familiei zuzenduta dagoela aipatzen da, baina ez da ezer gehiagorik zehazten. Aurreko orientabidea atalean, ordea, zehaztasun gehiago ematen dira parte-hartzaileen inguruan, beraz, diseinuaren koherentzia eta ordena berrikustea komenigarria da. Gainera, partaide kopurua mugatzea beharrezkotzat jotzen da. Diseinu honetan, aholkularitza ikastetxeko guraso guztiei eskainiko zaiela esaten da. Horrela izatekotan, ikastetxearen tamaina eta ordutegiaren antolaketa egokia txertatu behar dira, zenbat eta pertsona gehiago zailagoa baita antolatzea. Bestalde, prestakuntza aholkulari pedagogikoaren eskutik jasoko dela dakigu. Informazio hau helburuetan irakurri da, beraz, testuaren koherentzia eta ordenan akatsa egon da berriz. Gainera, bitartekaria aukeratzeko jarraitu diren irizpideak eta dimentsioak ez dira azaltzea. Honez gain, aholkulari pedagogikoak gaiaren inguruan izan beharreko aurretiko prestakuntza zehaztea ondo legoke. Prestatzailearekin bukatuz, prestakuntzan zehar izango duen papera definitzea oso garrantzitsua da, hau da, bitartekaria ikasi edo bitartekariari esker ikasi den azaltzea.

Atal honetan, diseinuaren iraupena eta prestakuntza non eramango den aurrera idazten da. Txosten honetan, prestakuntzak ikasturte baten iraupena izango duela argitzen da, 4 faseetan berezitutakoa. Dena den, fase bakoitzean erabiliko diren egunak, ordu kopurua eta ordutegia zeintzuk diren ez da zehazten. Prestakuntzaren lekuaren inguruan ez da ezer idatzi. Diseinu baten elementuak elkar lotuta doaz. Kasu honetan, parte-hartzaile kopurua zehaztu ez denez, leku aproposa bilatzea ezinezkoa egiten da. Eszenatokiaren aukeraketak komunikazioa erraztu behar du. Kasu honetan, ez dago oso argi zer nolako komunikazioa egongo den, beraz, eszenatokiaren barneko antolakuntza proposatzea zaila egiten da ere, espazioaren distribuzioa eta altzairuen kokapena, besteak beste.

Helburuak. Diseinuan zehaztutako helburuaren, gaitasunen eta diseinuaren garapenaren artean koherentzia dago. Diseinu honetan, helburu bakarra idatzi da; helburu orokorra. Helburua prestatzailearen zereginari egiten dio erreferentzia eta ondo idatzita dago.

Jarraian, garatuko diren 3 kompetentzia agertzen dira, bakoitza hitz batean azalduta. Gaitasunek ikaskuntza bat adierazi behar dute eta hauek formulatzeko modua ezarrita dago: objektua + aditza + xedea/baldintzak. Beraz, diseinuko 3 kompetentziak beste era batean adieraztearen beharra ikusten da. Kompetentziak prestakuntzan parte hartuko duten ikasleek garatu beharko dituzte eta hauek ebaluatzeko tresnak egon beharko dira.

Metodologia. Metodologiaren atalean, prestakuntzaren faseak eta saio batzuk bereizten dira. Diseinuaren iraupenaren atala aurrerago azaltzen denez, irakurleak ulertzeko zailtasunak izan ditzake. Berriz ere, koherentzia eta ordenaren akatsa dago.

Metodologiari dagokionez, hartzailearen arabera Plano Formatiboa eta Aholkularitza Planoa bereizi egingo direla argitu da, baina ez da prestakuntza modalitatea zehaztu. Estrategi metodologikoei dagokienez, informazio eskasa eskaini da. 1. fasean, klaustroarekin eta familiekin eztabaida gidatuak egingo direla zehazten da; 2. fasean, aholkulariaren banakako lana egingo da; 3. fasean, dinamika ezberdinen bidez klaustroari prestakuntza emango zaiola aipatzen da;

eta 4. fasean, aholkulariak ebaluazioa egingo duela esaten da. Ikasleriaren jardueran oinarritutako metodologiak edo informazioaren transmisioan oinarritutako metodologiak jarraituko diren zehaztea ondo legoke, bata edo bestean, ikaskuntza aktiboa bultzatzeko metodoak sustatuz. Hari beretik, metodologiari lotutako teknikak eta estrategiak edukiekin batera adierazi dira, hain zuzen ere, maieutika, eztabaida gidatua eta *role-playing* teknikak. Solasaldi dialogikoaren teknika, ordea, ez dago eduki batera atxikita, helbururik izango ez balu bezala. Edozein modutan ere, aipatutako 4 teknikak nola kudeatu azaltzea falta da.

Edukiak. Edukiak direla eta, komeni da esatea ez dutela irizpide bat jarraitu. Ezer baino lehen, 3 edukiak eta 3 konpetentziak berdinak direla jakinaraztea, prestakuntza diseinu batean atal desberdinak izan arren. Edukien aukeraketa egiterakoan, materia eta ikasleen inguruko ezaugarriak kontuan hartzea ezinbestekoa da, testuinguruaren deskribapenaren garrantzia bistan dagoelarik. Edukien diziplinen arteko erlazioaren arabera, prestakuntza multidiziplinarioa, pluridiziplinarioa edo diziplinartekoa izango den jakin daiteke ere. Bukatzeko, edukiak zein modutan jorratuko diren arabera, sekuentzia ziklikoan edo kontzentrikoan sailka daitezke.

Zehaztutako edukiek helburu eta gaitasunekin erlazioa dute, egia esan, berdinak dira.

Ebaluazioa. Ebaluazio sistema, erreferente batzuen funtzioan egin behar da. Testuinguruak hezkuntza politikaren, lege eta hastapen psikopedagogikoen baita parte-hartzaileen inguruko informazioa emango digu, eta ebaluazioa ezaugarri haiei egokitua egon beharko da.

Prestakuntza diseinuan, ebaluazio jarraitua eta bukaerako ebaluazioa egingo direla aipatzen da. Nolanahi ere, informazio hori ez da nahikoa eta ebaluazio sistema bat ezartzea beharrezkoa ikusten da. Ezer baino lehen, ebaluazio jarraian eta bukaerako ebaluazioan zer ebaluatuko den eta zertarako egiten diren zehaztu behar da. Ostean, ebaluazioan erabiliko diren tresnak aukeratu edo sortu behar dira. Kontuan izan behar da, diseinuan aipatutako elementu guztiak ebaluatuta geratzen direla. Ebaluazioa noiz eta nork egingo duen idatzi behar da ere.

Behin ebaluazioa eginda, datu analisia nolakoa izango den eta datu horiekin zer egingo den azaltzea komenigarria da. Jasoko diren datuak kuantitatiboak edo kualitatiboak izango dira, ebaluazio motaren arabera.

Erabilitako informazio iturriak. Prestakuntza diseinu honetan ez da bibliografiaren atalik idatzi. Atal hori, lagungarria izan daiteke irakurleentzat. Izan ere, aurkezten den diseinuak oinarri teorikoa duela frogatzen du. Gainera, bibliografiari esker, norberak irakurketan sakontzeko iturriak eskaintzen dira.

Gauzak horrela, baloratzen den prestakuntza diseinua martxan jartzeko aukerarik ez dauka. Esku-hartzea aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabide ekonomiko, material eta pertsonalak ez dira aipatu. Gainera, arestian esan bezala, txosten honetan informazio asko falta da. Ondorioz, prestakuntza-diseinua ez dago testuinguru erreal batean oinarrituta eta esku-hartzea irreal eta azalekoa da.

DISEINUAREN ZATI BATEN BALORAZIOA

Balorazio txostenaren hirugarren atalean, prestakuntza zati bakar baten balorazioa egingo da. Diseinu honetan, 3. fasea aukeratu da, garrantzitsuena dela aitortuz. Horiek horrela, behar haina zehaztaperen eman diren baloratuko da.

Prestakuntza zati honen justifikazioa modu egokian idatzita dago eta 3. fasea aukeratzearen arrazoiak modu argian azaldu dira. Hala ere, justifikazioan agertzen diren alderdi asko nola egin diren ez da azaltzen.

Helburuak. 3. fasean, helburuak zehaztu dira. Alde batetik, 2 helburu orokor idatzi dira, eta beste alde batetik, bi taldeetan banatutako 4 helburu espezifiko. Hauek guztiak, prestatzaileari zuzentzen zaizkio eta modu argian adierazi dira.

Gaitasunak. Prestakuntza zati honetan, berriz ere, edukiak eta gaitasunak nahastu dira.

Edukiak. Konpetentzien arabera sailkatu direla esaten da. Aurreko atalean bezala, gaitasunak oker formulatuta daude. Edukiak, ordea, ez dira agertzen eta baliabide eta estrategia metodologikoekin okertu dira.

Bitartekariak. Prestakuntza zatia aurrera eramateko, aholkulari pedagogikoa behar dela adieraztea da. Bitartekari honek, diagnostia egitea eta prestakuntza eta aholkuak ematea izango du zeregin.

Aholkulari pedagogikoa aukeratzea erabaki ona izan arren, zergatik den egokia aipatzea komeni da. Zenbat eta gehiago justifikatu, ulergarriagoa izango da testua.

Zereginak. Jarraian, konpetentzia, eduki eta estrategia izeneko atala dago, prestakuntza zatiaren zereginak jasotzen dituena. Bertan, testuinguru zehatzago baten faltan, gutxi garatu dela aitortzen da. Atal honetan, konpetentziak, edukiak, gaiak eta estrategiak antolatzeke eta lotzeko taula bat txertatu da. Esan beharra dago, nahiz eta inguruko informazioa falta, gehiago sakondu daitekeela. Ezer baino lehen, diseinuaren zeregina bera ez da idatzi. Irakurleak, aurreko ataletan irakurritakoaren arabera loturak egin beharko ditu, egingo diren jarduerak suposatuz. Horrek guztiak, konpetentzia eta zereginen arteko harremana apurtzen du. Lehen aipatu bezala, hemen ere konpetentziak, edukiak, gaiak eta estrategiak nahastu dira. Esate baterako, atal honetan edukia den Maieutika, estrategia didaktiko bezala aurkeztu da. Bestetik, estrategia didaktikoak azaltzea onuragarria izaten da. Ondorioz, estrategien aukeraketaren zergatia eta dakartzan abantailak ezagutzeko modua egoten baita. Zereginak garatzeko baliabideak ez dira agertzen. Horrenbestez, jarduera hauek aurrera eramateko izan beharreko aurrekontua ezin da jakin. Garrantzitsua da baliabideak kontuan izatea, esku-hartze idealizatuetan ez erortzeko.

Prestakuntza zatian, diseinuaren fase guztiak denboran zehar nola banatzen diren azaldu da. Hori dela eta, diseinuaren eskema orokorra egiteko erraztasuna egon da. Diseinuaren 3. fasean, prestakuntza zatia aztertzen duen fasean, ordutegia zehaztu da ere. Hala ere, antolakuntzari dagokionez, fase guztien zehaztapena diseinu orokorrari dagokio. Koherentziari dagokionez, akatsa egon da 1. faseak 3 asteko iraupena izango duela aipatzen baita, eta ondoren, 4 asteetan banatu delako.

Ebaluazioa. Denbora antolaketaren atalean, prestakuntza diseinu osoa ebaluatzearen inguruko informazioa ematen da, zereginen jarraipena ulertzeko lagungarria dena. Lehenengo eta behin, 1. fasean, aktak eta landa oharrak jasoko dira, eta 2. fasean, datu horiek kontrastatuko dira. Ostean, 3. fasean, jarraipena egingo da eta prozesuaren bukaeran ebaluaketa orokorra. Bukatzeko, 4. fasean, formazio inpaktu ebaluaketa egingo da bi-hiru hilabete igaro ondoren. Honek guztiak, ebaluazioak diseinu orokorrarekin duen erlazioa azalean uzten du. Prestakuntza zatiaren ebaluaketa atalean, zehaztasun gehiago ematen dira. 1. eta 2. faseko ebaluazioari Ebaluaketa diagnostikoa izena jartzen zaio, 3. faseko ebaluazioari Ebaluaketa jarraitua eta 4. faseko ebaluaketari Inpaktuaren

ebaluaketa/Amaierako ebaluaketa. Kontuan hartzekoa da ebaluazio bakoitza noiz egingo den deskribatuta dagoela.

Ebaluazioaren atalean gehiago sakondu daiteke. Ebaluazio irizpideak idaztea gomendatzen da, eta horretarako, gaitasunak eta helburuak ondo ezarrita egon behar dute. Izan ere, bata besteari lotuta doaz. Era berean, ebaluazio instrumentu guztiak zeintzuk izan beharko liratekeen aipatzea komeni da, eta ez egotekotan, norberak sortzea. Kasu honetan, Ebaluaketa jarraituan erabiliko den galdetegia eskura dago, baina Inpaktuaren ebaluaketan erabiliko den tresna falta da. Dena den, atal honetan aukeratutako prestakuntza zatian, hau da, 3. fasean sakontzea eskatzen da. Gainerako guztia, diseinu orokorraren atalari dagokio.

Diseinu orokorraren balorazioaren atalean aipatu bezala, behin ebaluazioaren datuak jasota horiekin zer egin zehaztea garrantzitsua da.

AZKEN EKARPENAK

Balorzio txostenari amaiera emateko, azken ekarpenak idatziko dira. Orokorrean, informazio asko falta da. Testuinguruaren azterketa egin ez izatearen ondorioz, gainerako atal guztietan sakontzeko zailtasunak egon dira. Are eta orokorrago, ikastetxeen funtzionamendua, hezkuntza legeak eta planak ezagutzea ezinbestekoa da, hari egokitzen zaion prestakuntza diseinu bat egin ahal izateko.

Testuinguruaren azterketaz gain, arazoaren azterketa egitea oso garrantzitsua da. Aurkezten zaigun egoeran, Haur Hezkuntzako 1. zikloko familien eta irakasleen arteko harremanetan tentsioak daude. Gainera, familiek eskolarekiko jarrera deskalifikatzaileak aurkezten dituzte. Prestakuntzaren helburua, arazo egoera honetan esku-hartzea da. Arazoaren azterketa egiten bada, ikastetxeko Harrera Plana hobetu behar dela antzeman daiteke. Izan ere, ezegonkortasuna eskolan sartu berriak diren familiekin sortu da. Ildo beretik, arazo egoera ikastetxeek derrigorrez izan behar duten Elkarbizitza Planaren barruan kokatu daiteke, bizikidetzaren arazoa baita. Elkarbizitza Planaren barruan, arazoez arduratzen den Behatokia atalak izan dituen jarrerak aztertu daitezke ere. Esan bezala, hezkuntza planak ezagutzea oso garrantzitsua da, hauek berregin edo ikasi behar diren ikusteko, besteak beste.

Ondorio gisa, prestakuntza diseinua oinarri teorikoekin eta testuinguruarekin gehiago lotuta berridaztea gomendatzen da.